

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 401/2019 Erabakia, ekainaren 25ekoa. Onestea Nekane Zeberio Ganzarain andreak Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendari postua uztea egindako zerbitzuak eskertuz

Diputatuaren Kontseiluak, irailaren 15eko 502/2015 Erabakiaren bidez, Nekane Zeberio Ganzarain andrea Diputatu nagusiaren Kabinetearen zuzendari izendatu zuen.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 eta 40.7 artikuluetan eta uztailearen 11ko 10/2018 Foru Arauak 9. eta 11. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio goi karguak eta konfiantzazko gainerako langileak izendatzea eta kargutik kentzea, betiere sailtako diputatuen proposamenak hala eskatuta.

Ikusi da Nekane Zeberio Ganzarain andreak aurkeztutako ukoa; beraz, Diputatu nagusiak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Nekane Zeberio Ganzarain andrea Diputatu nagusiaren Kabinetearen zuzendari kargutik kentzea, berak hala eskatuta.

Bigarrena. Erabaki honek 2019ko ekainaren 26tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 25a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE